



≡ III ≡ III : ≡ III ≡ III  
OSPITALEA

ANIMAZIOEN  
PROGRAMA



APIRILA >  
> AZAROA



DEPARTAMENDUKO  
ONDARE  
HEZKUNTZARAKO  
ZENTROA



IRISARRI ... ☼ ... 2•0•2•4



Ospitalea

Centre Départemental d'Éducation au Patrimoine  
Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa



# AURKI- BIDEA



4 - 5 ORRIALDEAK:  
AGENDA

6 - 7 ORRIALDEAK:  
OSPITALEAREN  
EZAGUTZERA

8 - 9 ORRIALDEAK:  
ERAKUSKETA: ZIGOR -  
MALDA BIZI


10 - 11 ORRIALDEAK:  
ERAKUSKETA: ELEKETA

12- 13 ORRIALDEAK:  
ZUEN HITZORDUAK

14 ORRIALDEA:  
ARGIBIDEAK ETA PREZIOAK



©COLLECTION PARTICULIÈRE






# EGITARAUUA

APIRILA	16 & 18	10:30 14:00 16:00	ESCAPE GAME	« Ihes jokoa » Ospitalean
	17	15:00 (FR)	FAMILIA TAILERRA	Mitologia
	23 & 25	10:30 14:00 16:00	ESCAPE GAME	« Ihes jokoa » Ospitalean
	24	10:00 (FR) 15:00 (EUS)	FAMILIA TAILERRA	Mitologia
	26	10:30 15:00	HAUR IKUSGARRIA	Flipluf, Alabena konpainia
	26	19:00	HITZALDIA	500 urteko kartografia Ipar Euskal Herriaz
MAIATZA	17	19:00	IKUSGARRIA	Revenantes, La Méchante Cie
EKAINA	14	19:00 (EUS)	IKUSGARRIA	Ihesi, Iduzkilore konpainia



UTZAILA	ASTEARTE GUZIEZ	10:30 14:00 16:00	ESCAPE GAME	« Ihes jokoa » Ospitalean
	OSTEGUN+ OSTIRAL GUZIEZ	10:00	BISITA	Malda bizi erakusketa + Ospitalea historia
	12 26	11:00 11:00	BISITA BISITA	Malda bizi erakusketa Zigor artistak emanik
AGORRI	ASTEARTE GUZIEZ	10:30 14:00 16:00	ESCAPE GAME	« Ihes jokoa » Ospitalean
	OSTEGUN+ OSTIRAL GUZIEZ	10:00	BISITA	Malda bizi erakusketa + Ospitalea historia
	2	EGUN OSOA	GERTAKARIA	« Malda erasoz hartu » (Zigor erakusketa)
	9 23	11:00 11:00	BISITA BISITA	Malda bizi erakusketa Zigor artistak emanik
IRAILA	6	11:00	BISITA	Malda bizi erakusketa
	6	19:00	HITZALDIA	« Zigorrekin eleketa » : Olivier Pouchoulou
	21 22	ASTEBURU OSOA	GERTAKARIA	Ondare Egunak
	11	11:00	BISITA	Malda bizi erakusketa Zigor artistak emanik
URRIA	11	19:00	HITZALDIA	« Zigorrekin eleketa » : Terexa Lekumberri etnologoarekin
	22 & 29	10:30 14:00 16:00	ESCAPE GAME	« Ihes jokoa » Ospitalean
	23	10:00 (FR)	FAMILIA TAILERRA	Lehengo Irisarri
	30	10:00 (EUS) 15:00 (FR)	FAMILIA TAILERRA	Lehengo Irisarri
	AZAROA	15	19:00	HITZALDIA
29		19:00	MINTZALDI KANTATUA	Pantxix Bidart eta Jean-Yves Roques



# ARRA- BERRITUA!



2024ko hasieran, Ospitalea obretan zen! Egitarauan, teilatu berri bat eta isolamendu eraginkorrago bat. Hastapenean, ekaina arte hetsirik egon behar zuen. Baina, enpresen ahaleginei esker, aitzinetik irekiko da: apirilaren 29an. «Dominique Duplantier, Baxenabarreko etxeak» 2021ean aurkeztutako erakusketa berriz ikusteko aukera izanen da eta, horren ondotik, udako berritasuna: «Zigor, malda bizi» erakusketa, uztailaren 6tik aitzina.

## OSPITALEKO ZALDUNEN KOMANDERI OHIA

Maltako Ordenako zaldunek XVII. mendean eraiki zuten bastiza handi hori, Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren etxea da 1980az geroztik.

Aspaldikoa eta modernoa abilki uztartu dituen zaharberritze ausartaren ondotik, Ospitalea Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa 2002an ireki zen.

Euskal Herriko ondarearen ezagutarazteko asmoz, zentroak bere ateak denei zabaltzen ditu martxotik azarora arte, eraikin historiko hori eta aldi bateko erakusketen deskubritzeko parada emanez.

Sar zaitez leku honen lilura ezagutzera...



## GEHIAGO JAKITEKO GOGOIA DUZU?

- > Haurrei eta familiei zuzendutako **escape game** bat eginez jostatzeko (8 urtez goitikoentzat);
- > Ondarearen bitartekari baten azalpenak entzunez **bisita gidatu** baten denboran;
- > **Altxor ihizi** bat eginez Irisarrin gaindi "Terra Aventura" aplikazioaren bidez ([www.terra-aventura.fr](http://www.terra-aventura.fr)).

*Animazioen datak agendan aurki itzazu 4-5 orr.*

2024KO  
UZTAILAREN 6TIK  
> URRIAREN 12RA

# ZIGOR, MALDA BIZI

2024ko udan, Euskal Herria Hirigune Elkargoak antolatua, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluarekin eta Baionako Hiriarekin partaidetzan, Zigor artistak sortutako *Malda bizi* erakusketa ibiltaria aurkezten du Ospitaleak.

*Malda bizi-ren* bidez, Kepa Akixo edo “Zigor” euskal artistak mirespenez bere herriaren ikusmolde intimoa aurkezten du. Bere zuri eta beltzeko argazkiek landugabeko paisaiek sortzen dituzten emozioak areagotzen dituzte. Bisitaria gonbidatua da Euskal Herriko maldetan ibiltzera. Horieta artistak eramaten du hausnarketa filosofikoa eta poetikoa naturaren indarraren aurrean.



## ERAKUSKETA IBILTARIA

2024ko maiatzaren 3 ekainaren 16:  
Didam, arte garaikiderako zentroa – Baiona

2024ko uztailaren 6 urriaren 12:  
Ospitalea, Departamenduko Ondare  
Hezkuntzarako Zentroa- Irisarri

2024ko azaroaren 8 – 2025ko urtarrilaren 5  
Agerria gunea – Maule



# ZUEN AGENDAK HAR!

## ■ Erakusketa eta eraikinaren bisita bateratua ondarearen bitartekari batekin

Uztaila - agorrila:  
ostegun eta ostiral guziez  
10:00tan  
Iraupena: 1:30  
Prezioa: 5€  
(dohainik 14 urtez pekoentzat)

## ■ Erakusketaren bisita gidatua bakarrik

Irailaren 6an eta urriaren 11an,  
ostiralez  
11:00tan  
Iraupena: 1:00  
Prezioa: 4€  
(dohainik 14 urtez pekoentzat)



## BISITA BATZU ARTISTAREKIN!

■ Uztailaren 12an eta 26an,  
ostiralez  
11:00tan

■ Agorrilaren 9an eta 23an,  
ostiralez  
11:00tan

■ Ondare Egunen kari: irailaren  
21an eta 22an  
(programa osoa laster)

■ Urriaren 11an,  
ostiralez  
11:00tan



## “ZIGORREKIN ELEKETA”

Artistak gonbidatzen zaitu gaualdi  
batera maldaz eta haren alderdi  
desberdinez solas egiteko asmoz:

■ Olivier Pouchoulou  
Irailaren 6an, ostiralez  
19:00tan

■ Euskal Kultur Erakundeko  
Terexa Lekumberri etnologoarekin  
Lekukotasun filmatu batzuen bidez,  
Zigorrek maldaz duen ikusmoldea  
konparatzen du egunero malda bizi  
dutenarekin.

Urriaren 11an, ostiralez  
19:00tan  
*Euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin*

## “MALDA ERASOZ HARTU” EGUNA

■ «Malda bizi» erakusketaren kari,  
Ospitaleak egun bat antolatzen du  
Zigorrek eta egunerokoan maldan  
bizi diren horiekin.


Egitaraua: erakusketaren  
aurkikuntza, artistarekin elkartzea,  
baina baita hizlari anitzekin ere,  
mendiaren baliatze anitzaren  
inguruan trukatzeko (pastoralismoa,  
kirola eta ingurumena...).

Agorilaren 2an, ostiralez  
10:00tik goiti

# eleketa:



Ahozko oroimenak  
Mémoires orales



2024KO URRIAREN 24TIK  
> AZAROAREN 30RA

## ELEKETA, Iholdi- Oztibarreko AHOZKO OROIMENAK

Euskal Kultur Erakundeak ekoiztua, Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren Artxibotegiarekin elkarlanean, erakusketa multimedia eta interaktibo honetan, Iholdi-Oztibarre lurraldeko 60 bat lekukoek beren bizipenak eta oroimenak aipatzen dizkigute, ikus-entzunezko pasarte batzuen bidez ( azpi-tituluak euskaraz eta frantsesez).



## ZUEN AGENDAK HAR !

■ **Terexa Lekumberri, Euskal Kultur Erakunde**ko etnologoa

Eleketa programaren kari, Iholdi-Oztibarren bildutako lekukotasun pasarte batzuen proiektzio gaualdia

**Azaroaren 15an, ostiralez**  
19:00tan

■ **Mintzaldi kantatua: Pantxix Bidart eta Jean-Yves Roques**

Jatorrizko musika sorkuntza, Eleketa Iholdi-Oztibarre erakusketan aurkeztutako dokumentuetan oinarritua.

**Azaroaren 29an, ostiralez**  
19:00tan

# ZUEN HITZOR- DUAK

## Ikusgarriak eta hitzaldiak

### 500 URTEKO KARTOGRAFIA IPAR EUSKAL HERRIAZ

Bilketa-ren erakusketa birtualaren aurkezpena .




-  Apirilaren 26an, ostiralez,  
19:00tan
-  1:30
-  Urririk

### IHESI, IDUZKILORE KONPAINIA

Bi emazte bide bazterrean. Alde batetik, Sabina. Zahar etxetik ihesi, inposatua izan zaion etorkizunetik ihesi. Beste aldetik, Marga, etxetik ihesi, hatsik gabeko etxekandere bizitik ihesi. Zuzendaritza: Maika Etxekopar


Jokolariak: Bernadette Iratzoki Luro & Maider Beheran

Musikaria: Ainhoa Elizondo

-  Ekainaren 14an, ostiralez,  
19:00tan
-  50 min
-  Urririk  
EUSKARAZ, DENEI IDEKIA,  
6 URTETIK GOITI

### FLIPLUF, ALABENA KONPAINIA

Dantza eta musika ikusgarria. Kantuak euskaraz; espresioa artistikoa eta unibertsala.

-  Apirilaren 26an, ostiralez,  
10:30tan eta 15:00tan
-  30 min
-  Urririk  
12 HILABETETIK GOITI

### REVENANTES, LA MÉCHANTE KONPAINIA




Azpijoko eta sorginkeria istorio, Prunelle Giordanok bere antzerkian XVII. mendeko Lapurdiko sorginkeri auziak berrikusten ditu, hilen artetik historiaren beren ikusmoldea ematera etortzen diren hiru emazte figuren bidez.

-  Maiatzaren 17an, ostiralez,  
19:00tan
-  45 min
-  Urririk  
FRANTSESEZ, DENEI IDEKIA,  
12 URTETIK GOITI

## Tailerrak familientzat

### “OSPITALEA” ESCAPE GAME




Ihes egiteko, asmakari andana bati aterabidea aurkitu beharko duzu, kodigo sekretuak asmatu eta ezohiko objektu eskuetan erabili. 8 pertsoneri mugatua.

-  8 urtez goiti. Izen ematea beharrezkoa.  
Asteartez eskolako opor denboran (A gunea)  
3 saio egunka:  
10:30 – 14:00 – 16:00
-  1:30
-  5 €

## Bisita iruzkinduak

### ERAKUSKETAK ETA KOMANDERIA

Maltako Ordena, alimaleko eraikin horren historia, euskal ondarea eta azkenik aldi bateko erakusketa... Ondarearen bitartekari batek Ospitalearen sekretuak erakutsiko dizkizu.

-  Uztaila-agorrila:  
ostegun eta ostiral guziez,  
10:00tan - Agenda begiratu sasoi kanpoko datentzat
-  1:00
-  5 €  
(DOHAINIK 14 URTEZ PEKOENTZAT)

## Tailerrak familientzat

### EUSKAL MITOLOGIA LEHENGO IRISARRI

(EUS ETA FR)

Euskal mitologiako ipuinak eta leiendak; eta ondotik tailer artistiko bat.

-  ■ Tailerra frantsesez:  
apirilaren 17an, 15:00tan  
eta apirilaren 24an, 10:00tan,  
asteazkenez
- Tailerra euskaraz:  
apirilaren 24an, 15:00tan,  
asteazkenez
-  2:00
-  4 €

(EUS ETA FR)

Lehenko Irisarri buruzko animazioa eta ondotik tailer bat.

-  ■ Tailerra frantsesez:  
urriaren 23an, 10:00etan  
eta urriaren 30an, 15:00tan,  
asteazkenez
- Tailerra euskaraz:  
urriaren 30an, 10:00etan,  
asteazkenez
-  2:00
-  4 €

# ARGIBIDE PRAKTIKOAK

Apirilaren 29tik azaroaren 30a arte idekia  
Sartzea urririk astelehenetik larunbatera  
10:00 > 12:30 - 13:30 > 17:30  
Hetsia igande guzietz eta besta egunetan

## PREZIOAK

Bisita librea eta hitzaldia : urririk

Bisita iruzkinduak: 4 € pertsona bakoitz  
(dohainik 14 urtez pekoentzat)

Bisita bateratuak: 5 € pertsona bakoitz  
(dohainik 14 urtez pekoentzat)

Tailerrak : 4 € pertsona bakoitz

Escape game, ikusgarriak: 5 € pertsona bakoitz

## ARGIBIDEAK ETA ERRESERBATZEA

📞 05 59 37 97 20  
✉ ospitalea@le64.fr  
🌐 www.ospitalea.fr

*Ordaintzeko : sosez, kartaz, txekez, Pays basque au  
Cœur txekez, Pass culture.*

# GURE ATZE- MATEKO

Ospitalea  
Departamenduko Ondare  
Hezkuntzarako Zentroa  
Plaza  
64780 Irisarri

# SARE SOZIA- LETAN SEGI GAITZAZU

📍 @departementdespyreneesatlantiques  
📱 #Departement64

